



Euskal Herria eta Kataluniaren arteko kultura trukaketaren proiektuaren barruan dagoen disko bilduma egin dugu. Euskal Herria eta Kataluniako musika industrien lankidetzeta da, musika taldeen trukaketa-kooperazioak diskoetan, promozioan eta managementean. Kultura minorizatuak diren aldetik, Euskal Herriak eta Kataluniak badute kidetasun handia, are gehiago bizi dugun garai politikoa kontuan hartuta. Sozial, politiko eta kultural adiskidetasun horiek abagune oso egokian utzi du Euskal Herria-Katalunia musika lankidetzeta.

Euskal taldeen diskoak, promozio-komunikazioak eta kontzertuen managementa Katalunian hango musika enpresen eskutik joango da eta Kataluniako musika taldeen diskoak, promozio-komunikazioak eta kontzertuen managementa Euskal Herrian Baga-Bigaren eskutik etorriko da. Parte hartuko duten bulego profesionalak hauek dira: **Exits, Música Global Discogràfica, Discmedi, Sonde3, Kasba Music** (Katalunia) eta **Baga-Biga** (Euskal Herria). Hauek dira disko-bildumarako aukeratutako taldeak: **Buhos, La Sra. Tomasa, Els Catarres, Txarango** (Katalunia) eta **Korrontzi, Itziarren Semeak, Hesian, Vendetta** (Euskal Herria).

ELS CATARRES

“Els Catarres (2010) talde akustikoa da baina zuzenekoetan indar itzela eta erritmo desberdinak nahastu ditugu errukirik gabe. Folk-rocka egiten dugu. Kantuen arteko kontrastea sortu nahi dugu hor dagoelako, gure iritziz, musika proiektuaren grazia eta muina, konplexurik gabe. Guk egiten dugun musikaren xedea da jendea zoriotsu egitea abestiak entzuten dituenean, jendea hunkitu nahi dugu. Edonon eta edonoiz antolatuta dezakegu jaia. Testuetan keinu metaforiko anitz sartu ditugu egunerokotasun kontzeptuekin batera kosmosa edo indar energetikoak daude. Beti era baikorretik idatzita, noski.”

LA SRA. TOMASA

Oso zaila da “La Sra. Tomasa (2011) taldearen estiloa laburbiltzea etiketa batekin, eta hori zen gure xedeetako bat taldearekin hasi ginenean, hots, musika mestizajea sortzea (latindarra odol eta suarekin geurea den askatasuna erakartzeko). Sustrai latindarrak hartu ditugu jatorri horretatik ikasteko. Kantuetako pasarte batzuetan “adarrak” paseatzera atera ditugu gure gaztaroko musika joerak gogoratzeko. Testuetan nahikoa ausart jokatu dugu, denetariko uneekin batera... guztiaz ahazteko, ongi pasatzeko, momentutxo batez gelditzeko, pentsatzeko, norberaren barruan bilatzeko, askatasuna oihukatzeke bengala bat eskuan duzula, denboraren balioaz ohartzeko, ahuntzaren ezulaz jabezteko, bidaiatzeko, une batez isilik egoteko ere bai, gogoratzeko noren agindupean gauden, eta ibili daitezela kontu handiz, eta beti zuretzat.”

BUHOS

“Hasieran Buhos taldea (2006) musika jotzeko aitzakia zen, porruak erretzeko eta birrak edateko astegunetan, baina gaizki sentitu gabe. Ia kantu guztiek dute rock eta skaren itxura, baina beste estilo askorekin nahastu ditugu. Buhos jaia eta aldarrikapenen batuketa da. Kantuak entzunez jabetuko zara zer nolako giroa dugu taldean. Zuzenekoan deskontrol eta alaitasun mezua daramagu jotzen dugun tokietara, baina ez ditugu aukerak pasatzen uzten aldarrikatzeko gure hizkuntza, kultura eta tradizioak. Beraz, gure abestiak jaia, borroka eta alkohola dira.”

TXARANGO

“Txarango (2010) taldean gustukoa dugun edozein musika nahasten dugu. Estiloa ez dugu kontuan hartzen, gehien axola diguna istorioak kontatzea delako. Estiloek jantzi egiten dute esan nahi duguna, kantuaren muiari egokien datorkien musika-paisaia dira (reggae, latindarra, rumba, punka, cumbia...). Euskal Herrian eta Katalunian pentsamendu kritikoa eta identitarioa lantzen dira egindako sormen artistiko eta kulturaletan. Testuetan bizitzen ikasteko hainbat esperientzia kontakizun datoz, barnekoak eta sozialak.”



KORRONTZI

Korrontzi folk taldea (2004) Agus Barandiaran trikitilariak osatu zuen Euskal Herriko musika tradizionala eta herrikoari bultzada emateko. Korrontzi taldeak bost disko ditu. Antzinako doinuetan babestutako Euskal Herriko folk musikari gaurkotasuna erantsi dio Korrontzi taldeak, baina beti trikitiaren esparrua oinarri hartuta. Agus Barandiaranek Gipuzkoako trikiti tradizionalaren ildoak oso gustuko ditu baina Bizkaiko koplen soinua etxetik ezagutzen ditu, bere familiaren tradizioetik. Korrontzi folk bandak tradizioari gaurko teknikarekin lagunduko dio haren alboan dituela beste musika tresnak (mandolina, baxua, perkusioa...).

HESIAN

Hesian taldeak sei disko ditu. Hesian taldearen disko bakoitzak haren izena handitu eta indartu baino ez du egin urterik urte, abestiak gero eta gertukoagoak egiten jakin dutelako eta kantuek izugarriko erakargarritasun pisua dutelako behetik goraino. Hesian taldearen “Hegalak astinduz” diskoak bikain elkartu ditu Zuriñeren ahots leun eta goxoa, Franen indar trinkoarekin, batuketak emaitza bakararra du: kantuen bat-bateko abegikortasuna. Hesian taldearen diskoa rockzaleagoa izango da jaia eta konpromisoa alboratu gabe. Hesian taldeak sorginduko gaitu rocka poparekin uztartuta eta baita punkarekin ere. Hesian taldean letrak mamitsuak dira, sakon, bizi eta esanguratsu.

VENDETTA

Vendetta taldeak lau disko argitaratu ditu. Vendetta taldearen ezaugarrietako bat izan da musika estiloak nahastea, skaren abiadurak eta rockak pisu handia izan du taldearen konposizioetan. Lan berrietan estilo berriak sartu badituzte ere, dantzarako aproposagoak diren funkia, edo horren gogorra ez den countrya, alderdi rockeroa gogortu egin da punk atala azaleratuz eta honek dakarrena da melodia zeltak ere kutsaturik geratu direla gitarra distorsionatuekin.

ITZIARRIN SEMEAK

Itziarren Semeak taldeak (2006) lau disko argitaratu ditu, eta denak berriki ateratako “Revolta!” diskoaren espiritu eta aldarrikapen bide beretik. Itziarren Semeak taldeak agintarien mendekotasunetik askatzeko oihu sutua eta nahia gerturatuko digu ska, rock eta punk estiloak erabiliz. Gainera “Revolta” izenburuak Kataluniari egiten dio aipamen, zehazkiago Lluís Llach abeslariaren “Revolta permanent” diskoaren izenburuari.